

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 96/2016 Erabakia, martxoaren 1ekoa, hasierako agiriari aurkeztutako alegazioei erantzuten diena eta onartzen duena "ES2110011 Kontserbazio Bereziko Eremuaren jarraibideak eta neurriak (KBE Zadorraren Sistemako Urtegiak)" izenekoaren behin betiko agiria, III. eranskin gisa txertatzeko naturgune babestu horren izendapen agiriari

Europako Batzordearen 2004ko abenduaren 7ko eta 2006ko uztailaren 19ko erabakien bidez, eskualde biogeografiko atlantiko eta mediterraneoetako Batasunaren garrantzizko lekuen (BGL) zerrendak onetsi ziren, Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera. Zerrenda horietan Zadorraren Sistemako Urtegiak-ES2110011 KBE (Kontserbazio Bereziko Eremua) jasotzen da. Eremu horren ehuneko 98 Arabako Lurralde Historikoan dago eta gainerako ehuneko 2a Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Bat etorri Kontseiluaren maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauak (habitat naturalak eta basa fauna eta landaredia zaintzeari buruzkoa) 4. artikuluan eta abenduaren 13ko 42/2007 Legeak (natura ondare eta biodibertsitatearena) 44. eta 45. artikuluetan xedatutakoarekin, autonomia erkidegoek, jendaurrean jartzeko prozeduraren ondoren, BGL guztiak kontserbazio bereziko eremu (KBE) aitortuko dituzte, eta finkatu egingo dituzte beharrezko zaintze neurriak, eremu horietan dauden habitat natural moten eta espezieen eskakizun ekologikoei erantzuten dietenak. Zaintze neurriek berekin ekarriko dituzte kudeatze plan edo tresnak eta erregelamendu, administrazio edo kontratu neurriak.

Halaber, ekainaren 30eko 16/1994 Legearen testu bateratuak (natura babestekoa, Eusko Jaurlaritzak apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuta) 22. artikuluan prozedurak definitzen ditu KBE izendatzeko eta dagozkien arauak eta kudeatze jarraibideak egiteko; hain zuzen ere, 2.5 paragrafoak hau xedatzen du:

Kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuak (HBBE) izendatzeko dekretuek kontuan hartuko dituzte Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kontserbatzeko sortutako arauak. Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kudeatzeko zuzentarauak eranskin gisa argitaratzeko agindua emango du.

Lurralde historikoetako foru organoek kudeaketa zuzentarauak onartuko dituzte, kontserbazio helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak. Plan horiek bereziki aintzat hartu beharko dituzte azalera osoa zein bere lurzoruen zati handi bat leku horietan daukaten udalerrien beharrak. Baldintza horien arabera egingo diren zuzentarauak Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailari bidali beharko zaizkio, dagokion adierazpen dekretuaren eranskin gisa argitara ditzan.

Eusko Jaurlaritzak ekainaren 30eko 120/2015 Dekretuaren bidez, kontserbazio bereziko eremu izendatu zuen Zadorraren Sistemako Urtegiak-ES2110011 KBE. Dekretu horren 3.3 artikulua xedatzen du Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzaren ebazpen bidez argitaratuko direla, dekretu honen eranskin gisa, Arabako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak toki horretarako onartzen dituzten kudeaketa zuzentaruak eta neurriak.

Testuinguru horretan, KBE izendatzeko prozesuak iraun zuen bitartean, Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 24ko 516/2015 Erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman zion Zadorraren Sistemako Urtegiak-ES2110011 KBEren kudeaketa zuzentzarau eta neurrien agiriari. Agiri hori bi hilabetez jarri zen jendaurrean, eta interesdunei entzunaldiko izapidea onartu zitzaion.

Izapideok beteta, aurkeztutako alegazioak eta iradokizunak Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren txostenean, erabaki honi erantsitakoan, jasotako moduan Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek batera ebatzi ondoren, onartu egiten da behin betiko KBEren kudeaketa zuzentzarau eta neurrien agiria, Eusko Jaurlaritzaren 120/2015 Dekretuari III. eranskin gisa atxikitzeko.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

LEHENENGOA. Erantzutea Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 24ko 516/2015 Erabakiak hasierako onarpena eman zion Zadorraren Sistemako Urtegiak-ES2110011 KBEren kudeaketa zuzentzarau eta neurrien agiriari entzunaldiko izapide garaian jendaurrean egon zen bitartean aurkeztutako alegazioei, Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren txostenean, erabaki honi erantsitakoan, jasotako moduan.

BIGARRENA: Behin betiko onartzea Zadorraren Sistemako Urtegiak-ES2110011 naturgune babestuaren kudeaketa zuzentzarau eta neurrien agiria. Naturgune hori KBE (kontserbazio bereziko eremu) izendatu zen Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 120/2015 Dekretuaren bidez, kudeaketa agiriari III. eranskin gisa atxikitzeko, aipatutako dekretuaren azken xedapenetatik lehenean adierazitako moduan. Dekretu hori 2015eko uztailaren 2an argitaratu zen, EHAAn (13 zk.).

HIRUGARRENA. "Kudeaketa zuzentzariak eta neurriak" agirian jasotako kudeaketa neurriak gauzatzeko zuzkidura ekonomikoak kasuan kasuko aurrekontuekin onartuko den aurrekontu erabilgarria egotearen baldintzapean daude, eta, edozein kasutan ere, agiri horretako kalkulu ekonomikoa 92/43/EE Zuzentzarauaren 8. artikuluan aipatutako kofinantzaketa komunitarioari dagokionez beharrezko irizitakorako egiten da.

LAUGARRENA. Erabaki hau jakinaraztea Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari.

BOSGARRENA. Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

SEIGARRENA. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 1a

Diputatu nagusia


RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTIN





AURKIBIDEA

1.- KUDEAKETAKO GIDALERRO ETA NEURRIAK

2.- FUNTSEZKOAK DIREN EDO KUDEATU BEHAR DIREN ELEMENTUEN KONTSERBAZIO NEURRIAK

- 2.1. URTEGIEN SISTEMA
- 2.2. UR GEZAKO HABITATAK
- 2.3. HEGAZTI FAUNA
- 2.4. BISOI EUROPARRA
- 2.5. IGABARA
- 2.6. BASO IGEL JAUZKARIA ETA HEGOALDEKO APO PINTATUA
- 2.7. NAIADAK

3.- KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

- 3.1. GOBERNANTZA

4. JARDUEREN KOSTUAREN GUTXI GORABEHERAKO KALKULU EKONOMIKOA

1. KUDEAKETAKO GIDALERROAK ETA NEURRIAK

Euskal Herriko natura babesteko Legeak –zeinaren testu bategina honen bidez onartu baitzen: 1/2012 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa– mekanismo jakin bat zehazten du Europako Erkidegoko araudiaren babesean sortutako espazioen babes figurak lantzeko, zehazki, Natura 2000 Sarean jasotako naturagune babestuei heltzeko.

Hala, Legeak, 22. artikuluko 5. idatz zatian, zera ezartzen du: "*Lurralde historikoetako foru-organismoek kudeaketa-jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio-helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio-egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak.*"

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren ekainaren 30eko 120/2015 Dekretuaren bidez (EHAA 135. zk., 2015eko uztailaren 20koa), zadorra Sistemako Urtegiak Kontserbazio Bereziko Eremua izendatu zen, bere kontserbazio neurriak eta jarraipen programa ere ezarrita.

Dokumentu honetan, KBE ES2110011 Zadorra Sistemako Urtegiak **Kudeatzeko Gidalerroak eta Neurriak** ezartzen dira, 120/2015 Dekretu horretan ezarritako kontserbazio helburuen oinarriaren gainean.

Dokumentu honetan Zadorra Urtegiko kontserbazio helburuak lortzeko ezarri diren **jarduerak** honako hauek dira:

1.AC. Jarduera komunak ibaietan. 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren babes bereziko zonak izendatzen dituen eta haiek onik zaintzeko neurriak onartzen dituen. I. eranskina.

AP. Zadorra Sistemako Urtegiak KBEko **jarduera bereziak.**



2.- FUNTSEZKOAK DIREN EDO KUDEATU BEHAR DIREN ELEMENTUEN KONTSERBAZIO NEURRIAK

2.1 URTEGIEN SISTEMA

Helburuak. Gidalerroak eta neurriak

1. Helburu operatiboa	Urtegiako uraren kalitateari eta kantitateari eustea, sistemaren barruan dauden intereseko espezieen habitaten eta populazioen kontserbazio egoera onerako ezinbesteko baldintza gisa.
Gidalerroak eta neurriak	1.AC.1 Urtegien ertzeko berezko habitatak lehengoratzeko dira, eta, beharrezkoa denean, lurren jabeekin edo errentariekin borondatezko akordioak sustatzeko dira, lur landatua, larreak edo etenak sorrazaz ahal dituzten bestelako erabilerengatik ibaiertzeko landaretzaren jarraitasuna galdu den tarteetan. Helburua ibaiertzeko landaredi naturaleko zerrenda etengabe bat lehengoratu eta mantentzea izango da, organo kudeatzailleak zehazten dituen lehentasunezko esparruetan eta ezartzen diren lehentasunen arabera. KBE planifikatzeko eta kudeatzeko eskumena duten administrazioek parte hartuko dute zerrenda hori ezartzean. 1.AC.2 Akordio boluntarioak sustatzeko dira ibaiertzeko lursailen jabe edo errentariekin, sotoak sortu eta ibaiertzeko basoa leheneratzeko gaur egun makalen plantazioek okupatzen dituzten lur zatietan edo KBEaren barruan dauden luberritueta edo Natura 2000 Sareko beste espazio batzuen ondo-ondoko lotura eremuetan. Hala, ibaiertzeko sistemei lotutako fauna espezieen babeslekuetarako gune aproposak sortu nahi dira, bereziki igarabentzat eta bisoientzat. Zein azaleratan jardungo den, hori KBE kudeatzen duen organoak zehaztuko du. 1.AC.24. Zadorra Sistemako Urtegiak KBEari buruz egindako <u>Diagnostiko Azterlanak</u> eguneratzea eta zehaztea. "Europar Batasunaren Intereseko" eta "lehentasuna duen Europar Batasunaren Intereseko" gisa katalogatutako ibaiertzen eta habitaten kontserbazio egoera eguneratzea eta zehaztea, 1/2000 eskalan. KBEan dauden ingurumen aldaketa eta eraginik behinenak identifikatzeko dira. Horrez gain, hondatutako ibaiertzeko habitatak eta ekologia aldetik lehengoratu eta hobetu behar diren ezpondak jasotzen dituen inbentario bat egingo da. 1.AC.25. Jarduera plana. Egindako Diagnostiko Azterlanean lortutako emaitzak ikusita, Jarduera Plan bat definituko da. Plan horrek neurri zehatzak definituko ditu, detektatutako ingurumen arazoak konpontzeko, dauden ingurumen eraginak zuzentzeko eta eraginpean dauden eremuak ekologia aldetik atundu eta lehengoratzeko. Jarduera planak "Unean uneko eragin guneak" eta "Modu linealean aldatutako guneak" bereiziko ditu. Eragin mota bakoitza lehengoratu eta zuzentzeko jarraibide batzuk ezarriko dira. Alde horretatik, jardueren arteko lehentasunak ezarriko dira eta halen balorazio ekonomikoa egingo da. Horretarako, batasunaren intereseko eta/edo lehentasunezko jardueren lehentasuna ezarriko da, 92/43/CE Zuzentarauaren arabera. 1.AC.26. Kontrolik gabeko isurketen eragina jasan duten eremuak lehengoratzeko. Horren barruan hauek egin beharko dira: - hondakinak kentzea, eta geroago tratatu eta behar bezala kudeatzea. - eraginpean dauden guneak ingurumen aldetik lehengoratzeko, babestutako habitatak lehengoratzeko. 1.AC.27. KBEan aplikatu beharreko araudiari egokitu ez zaizkion baratze eta eraikinen eta bestelako okupazio edo kokalekuen administrazio egoera aztertzea eta halakoak desagerraraztea, baldin eta Natur Gune Babestuaren babesa eta helburuen lorpena arriskuan jartzen badituzte. Beste administrazio eskudun batzuekin lankidetzan, halakoak desagerrarazteko eta eraginpean dauden habitatak lehengoratzeko jarduerak inplementatzea. KBEko sektore garrantzitsuenetan esku hartzeen lehentasunak ezartzea.

	AP.1.- Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegieta isurtzen duen Arroa Babesteko Plan Berezia idaztea, uraren kalitatearen arazoa ikuspegi globaletik jorratuta. Plan horretan, besteak beste, urtegiaren babes perimetroa (<i>uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretua</i>) ezarri beharko da, eremu horretan garatu beharreko jarduerak eta lurzoru erabilera araututa, ur kantitateari eta kalitateari eta urtegiaren dauden ekosistema naturalei eragin ez dakien. AP.2.- Alegriako kanaletik datorren eta urtegiara doan karga kutsagarria kontrolatzea. Nutrienteen ekarpen altua antzematen bada, neurri egokiak hartuko dira karga kutsagarria murrizteko. Bestalde, azterketa bat egingo da kanala bera egiteak dituen ondorioei eta kanalak Alegria ibaian, eta, zeharka, Zadorra ibaia ES2110010 eta Salburua ES2110014 KBEtan dituen ondorioei buruz. AP.3.- Mendixurreko isatsetik (eta urtegiaren horiek ugaritzen diren beste toki batzuetatik) makrofitoak ateratzea urteko landaretza zikloaren amaieran (uda amaieran), berau deskonposatzea saihesteko, eta, horrek eragiten duen nutriente ekarpena ekiditeko. Aterako dena <i>Ceratophyllum demersum</i> espeziea izango da soilik, berau baita hedatuen dagoena eta azalera unitateko biomasa gehien metatzen duena. 1.AC.3 jarduera aplikatu behar da. Arro organismoaren aurrean KBE osatzen duten urtegiaren jabari publiko hidraulikoa zehazten dela sustatzea, organismo horrek egindako edo balioztatutako azterlan teknikoak oinarri hartuta. Jarduera honen helburua jabari publiko hidraulikoarekin lotutako eremuak (zortasun eta polizia gunek barne) lehentasunezko esku hartzerako gune gisa zehaztea da, aipatu helburuetan lagunduko duen ibaiertzeko landaretza naturalaren orla sortzeko. Urtegieta uraren kalitatearen jarraipenerako aldizkako laginketen jarraitutasuna bermatzea (1.AC.5 jarduera). KBErako urtero txosten espezifiko bat (1.AC.6 jarduera) egingo da. Txosten horretan egindako laginketa guztien emaitzak agertuko dira, eta, informazio horretan oinarrituta, hauek ezarriko dira: kutsadura iturri posibleak, eta, bidezkoa bada, uraren kalitatea bermatzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak eta prebentziozkoak edo/eta laginen igoera. 1.AC.10 KBEari eragiten dion eremuan egiteke dauden saneamendu eta arazte planak gauzatzea.
2. Helburu operatiboa	Urtegiaren ur bazterretan zuhaixka eta zuhaitz landarediaren orla kontserbatzea eta leheneratzea.
Gidalerroak eta neurriak	AP.4.- Urtegiaren bi ertzetan "iragazki berdeko" zuhaixka eta zuhaitz pantaila begetala instalatzea, zabalera nahikoa duena, arrotik datorren kutsadura nahasia arinduko duena eta KBEaren funtsezko elementu gisa jotzen diren espezieentzako korridore ekologiko gisa funtzionatuko duena. Proiektuan urez gainezka egiten duten lurzoruekin lotutako baso naturalak leheneratzea jaso beharko da, baita, ahal denean, uretatik urrunduen dauden guneeetan baso autoktonoa berreskuratzea ere. Lehentasunezko jarduera eremu gisa, abeltzaintza edo nekazaritza intentsiboak ia urtegiaren gehieneko kota osoa hartzen duten eremuak aurreikusiko dira. Jarduera horren barruan, beharrezkoa den kasuetan, balio ekologiko handiko lurren eskurapen, errentamendu, usufruktu eta/edo zortasuneko eragiketak sartuko dira. Jardutako esparru zehatzak egindako xehetasuneko inbentarioa oinarri hartuta zehaztu beharko dira. Era berean, ibaiertzeko ezpondetan salikazeoen estakilatutak egitea aurreikusiko da, alde horretan bertan bildutako aldaxkak erabiliz. Halaber, zuhaixka edo zuhaitzik ez duten guneeetan landaketak egingo dira ibaiertzeko habitat naturalak lehengoratzeko, bereziki "Lehentasunezko Interesa" duten habitata. 1.AC.28. Konektibitate ekologikoari dagokionez onetsitako estrategiak aplikatzea, KBEan garrantzi komunitarioko edota lehentasunezko izendatutako habitaten arteko konexioa bultzatzeko, baita horien eta Natura 2000 Saretik hurbil katalogatutako beste habitat batzuen eta, oro har, inguruan ingurumen interesa duten eremuen arteko ere. Konektibitatearen aldetik interesgarriak diren eremuak identifikatzea, eta horiek kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak egitea.



3. Helburu operatiboa	Olgeta erabileraren kontrola
Gidalerroak eta neurriak	1.AC.21 jarduera aplikatu behar da, sentsibilizazio eta Ingurumen heziketako jardueren garapenari buruzkoa. Horren harira, Arabako Foru Aldundiak dagoeneko urtegietan martxan dituen erabilera publikoko, Ingurumen heziketako eta naturaren Interpretazilo kudeaketa lanekin jarraitzea proposatu da. Lan horiek Urrunagako urtegiara ere hedatuko dira. 1.AC.23 KBEan ezaugarri bereziak edo erabilera publiko berezia duten lekuetan, Ingurune bakoitzari egokitutako seinaleak instalatuko dira, KBE eremua nahiz haren ingurumen balloak identifikatzeko.

2.2. UR GEZAKO HABITATAK**Helburuak. Gidalerroak eta neurriak**

Azken helburua	Habitaten garapena erraztuko duten baldintzak mantentzea eta kontserbatzea, betiere kontuak izanik ingurune artifizial batean garatzen direla eta hornidurarako erabileraren ondoriozko ur geruzaren mailaren gorabeheren mende daudela. Komenigarritzat jo da KBEan agertzen diren gisa horretako habitaten kudeaketari batera ekitea eta guztiek osatzen duten sistemarako helburuak, erregulazioak eta neurriak definitzea, habitat bakoitzerako berariazko neurriak proposatu ordez. Hortaz, planteatu beharreko jardunek helburuok izango dituzte: - Garapenerako baldintza egokiak mantentzea. - Habitata eta bertan dauden fauna eta flora populazioak modu aktiboan kontserbatzea. - Olgeta erabileraren ondorioz faunaren eta floraren gaineko eraginak saihestea. - Heldutasuna, egitura konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea.
1. Helburu operatiboa	Ur gezako habitatak garatzeko baldintza egokiei eustea. Haien heldutasuna, egitura konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea.
Gidalerroak eta neurriak	“Urtegien sistema” funtsezko elementuko uren egoera onari eta kalitateari eusteko neurriak aplikatuko dira, haren garapenerako baldintzak sustatze aldera. AP.5 Abereak dauden urtegiaren ertzeko guneeetan askak eraiki eta mantentzeko planarekin jarraitzea, erkidegoaren intereseko 3140, 3150 eta 3170 habitatak garatzen diren azaleko uren ertzak zapaldu eta eraldatzen direla saihesteko. 1.AC.11 jarduera aplikatu behar da: KBEan dauden habitaten jarraipena egiteko protokolo bat ezarriko da (6 urtero), batez ere ur gezako habitaten kasuan (3140, 3150, 3170* eta 3260), okupatutako azaleran eragiten dituzten aldaketak, bilakaera, elkarren arteko loturak eta egiturazko bilakaera baloratzeko. Horretarako, gunen iraunkorrak jarriko dira, kontserbazio egoeraren bilakaera aztertze aldera. 1.AC.12 jarduera aplikatu behar da, azalera oso txikiak okupatzen dituzten, urteko garai jakin batzuetan egoerarik onena duten edo zehazteko teknika bereziak behar dituzten ur gezako habitaten inbentarioari eta kartografiari buruzkoa. Habitat horiek honakoak dira: 3140 habitata, kare ur oligomesotrofikoak, <i>Chara spp</i> landaretza bentikoarekin; 3150 habitata, <i>Magnopotamion</i> edo <i>Hydrocharition</i> landaredia duten laku eutrofitiko naturalak; 3170* habitata, Behin-behineko <i>urmael mediterraneoa</i>; 3260 habitata, <i>Estaia</i> muiotat eta menditarreko ibaiak, <i>Ranunculion fluitantis</i> eta <i>Callitriche-Batrachion</i>-eko landarediarekin. 1.AC.13 jarduera ere aplikatu behar da: Laginketa zehatzak egingo dira inguru akuatikoarekin lotutako erkidegoaren edota eskualdearen intereseko ornogabeek KBEaren eremuan duten presentziari buruzko ezagutza hobetzeko. Laginketa ahalegina erkidegoaren intereseko espezieetan oinarritu behar da, hasieran, besteak beste, <i>Coenagrion mercuriale</i>, <i>Macromia splendens</i>, <i>Oxygastra curtisii</i>, <i>Margaritifera auricularia</i>, <i>Margaritifera margaritifera</i>... espezieetan, bai eta Habitaten Zuzentzarauko eranskinetan jasota ez dauden eta mehatxu egoera handiagoa duten horietan: <i>Coenagrion scitulum</i>, <i>Calopteryx xanthostoma</i>, <i>Calopteryx haemorrhoidalis</i>, <i>Onychogomphus uncatius</i>, <i>Boyeria irene</i>... 1.AC.15. KBEan dauden mehatxupeko flora populazioen aldizkako monitorizazio eta jarraipena egitea (6 urterik behin), haien banaketa, adierazgarritasuna eta kontserbazio egoera zein diren jakiteko. 1.AC.17 KBEko habitat naturalen balio galera eragiten duten flora exotiko inbaditzaileen espezieak (<i>Robinia pseudoacacia</i>, <i>Ailanthus altissima</i>, <i>Buddleja davidii</i>, <i>Cortaderia selloana</i>, <i>Arundo donax</i>, <i>Azolla filiculoides</i>, eta abar) kontrolatzeko eta haien aldizkako jarraipena egiteko jarduerak egingo dira. Habitat naturalen egiturarentzat eta funtzioentzat kaltegarriak ez diren metodoak erabiliko dira. Zein azaleratan jardungo den, hori KBE Kudeatzen duen organoak zehaztuko du.



2. Helburu operatiboa	Uren kalitatea bermatzea
Gidalerroak eta neurriak	"Urtegiako sistema" funtsezko elementuko neurriak aplikatu behar dira, KBEko uren kalitateari eta egoera ekologiko onari eusteari buruzkoak.
3. Helburu operatiboa	Olgeta erabileraren kontrola
Gidalerroak eta neurriak	1.AC.21 jarduera aplikatu behar da, ingurumen heziketarako eta sentsibilizaziorako jarduerak garatzeari buruzkoa, urarekin lotutako erkidegoaren intereseko habitaten kontserbazioak duen garrantziaz dagokionez. Horren harira, Arabako Foru Aldundiak dagoeneko urtegieta martxan dituen erabilera publikoko, ingurumen heziketako eta naturaren interpretazioko kudeaketa lanekin jarraitzea proposatu da. KBEen multzorako proposatutako jarduera komunak aplikatu behar dira, eta, bereziki, erabilera publikoari eta inguru akuatikoetako gunerik sentikorrenetarako sarbide publikoaren arauketari buruzko gidalerroak (8.D).

2.3. HEGAZTI FAUNA**Helburuak. Gidalerroak eta neurriak**

Azken helburua	Espazio honetan bizi diren hegazti populazioak babestea, bai migratzaileak, bai habiagileak, talde bakoitzerako KBEaren harrera ahalmena hobetuta
Gidalerroak eta neurriak	Urtegien sistema funtsezko elementurako proposatutako jarduerak aplikatu behar dira. AP.6., Mendixur eta Garaioiko Isatsen eremuan batez ere, lezkadi hezearen presentzia sustatzea eta toki horietarako egokiak diren maila hidrikoak sustatzea. Lezkadi hezearen garapena sustatzeak eragin positiboa izango luke <i>Podiceps cristatus</i>, <i>Anas strepera</i>, <i>Rallus aquaticus</i>, <i>Ardea purpurea</i> eta <i>Acrocephalus arundinaceus</i> espezieetan. Azpimarratzekoa da <i>Acrocephalus arundinaceus</i> espeziea bereziki sentikorra dela habita atal oso zatituen existentziaren aurrean. Hori dela eta, beharrezkoa da lezkadi hezearen gutxieneko azalera bat edota lezka orban desberdinen arteko konektibitate ekologiko onargarria izatea. Espezie hau sakabanaketa distantzia urriagatik eta filopatria maila altuagatik bereizten da. Lezka txatalen tamaina eta horien isolamendua espeziearen sarrera gaitasunarekin lotuta daude. RAMSAR eremuan urtegiatako uren kalitatearen jarraipenerako egiten diren aldzakako laginketetan (urtegien funtsezko sistemako 1.AC.5 jarduera) analisiak sustatzea, uretan eta sedimentuetan dauden microcystis zianobakterien presentzia antzemateko. Era berean, 1.AC.6 jardueran aipatzen den txosten zehatzean jasoko dira, hala badagokio, eremu horretan zianobakteriak egoteko aukeraren azterketa, aukera hori monitorizatzeko proposamena, eta prebentzio, zuzenketa eta babes neurriak, besteak beste zianobakterien loratzeari aurrea hartzeko alerta goiztiarrerako sistema sortzea. AP.7 Ibaietako arrantza jarduerak hegazti fauna akuikolako espezieen habia prozesuan dituen eragin posibleak aztertuko dira, eta, hala badagokio, zuzenketa neurriak proposatuko dira. AP.8 Urtegien isatsetako habitata egonkortzea, uraren mailan gorabeherak egotea saihestuta, edo/eta urez gainez egin dezaketen larreei eutsita, urak jasotzeko ekintzen bidez, eta, hala badagokio, Uribarri-Ganboako urtegiaren dike bat eraikitzeak aukera aztertzea, Mendixur eta Garaioiko isatsetan maila hidriko egokiak eduki ahal izateko. Jarduera honen helburua hegazti akuatikoen negutarren (<i>Podiceps cristatus</i>, <i>Podiceps nigricollis</i>, <i>Anser anser</i>, <i>Anas clypeata</i> eta <i>Anas strepera</i>) eta ugaltzaileen (<i>Podiceps cristatus</i>, <i>Anas strepera</i>, <i>Rallus aquaticus</i> eta <i>Ardea purpurea</i>) populazioen finkapena eta garapena sustatzea da. 1.AC.16: Urtero, hegazti fauna habiagileen eta negutarren errolda kanpaineekin jarraituko da, gaur egun bezala. Jarduera horren barruan, urtegiatako hegazti habiagileen populazioen kontserbazio egoerari buruzko diagnostikoa, beren bilakaera demografikoa eta beren habitatei eragiten dieten asalduren azterketa jasoko dira, populazio horien egoerari eutsi edo/eta berau hobetzeko. Jardueran, Riparia riparia espeziearen kolonia aktiboan jarraipen berezia egingo da, egungo ezpondak Riparia riparia iritsi baino lehen egokitu daitezen (beharrezkoa bada), espeziearen ugalketaren arrakasta bermatzeko. 1.AC.18. RAMSAR eremuan fauna espezie exotiko inbaditzaileen aldzakako jarraipen eta desagerpen jarduerak gauzatzeko dira eta lehentasuna izango dute eragin ahalmen handia duten horiek, besteak beste, karramarro gorriak eta lutxoak. Izan ere, horien ugaritzeak hegazti talde jakin batzuentzako (batez ere podizipidoentzako) harrapakinak lekuz aldatzea edo/eta desagertzea eragiten du. Une oro saihestuko da espezie exotiko inbaditzaile honen sustapen eta kontserbaziorako kudeaketa. 1.AC.21 Ingurumen heziketarako jarduerak garatzeari eta erabilera publikoa kudeatzeari buruzko jarduerak garatzean, kontuan hartuko da hegaztientzako bereziki sentikorrak diren arloetarako sarbidea mugatu egin behar dela, urteko zikloko funtsezko une batean (adibidez, ugalketa garaian) gizakien presentziaren ondorioz eragozpen zuzenik sor ez dadin. Horretarako, KBEaren eremuan dauden urekin lotutako olgeta erabilera bizia (kirol nautikoak, bainua, mendizaletasuna, arrantza, eta abar) kontrolatzeko proposatu da, ugalketako hegazti faunarentzat bereziki



Interesgarriak diren gune jakin batzuetan.

AP. 9 Aurreko neurria aplikatuz, ugalketarako hegazti akuatikoen erkidegoari lasaitasuna emango dion gune erreserbatu bat sortzeko edo/eta handitzeko aukera aztertzea, jendearen sarbidea saihestuta. Eta onura gehien jasoko lituzketen espezieak *Podiceps cristatus*, *Ardea purpurea*, *Anas strepera* eta *Rallus aquaticus* lirateke. Galnera, *Netta rufina*, ugalketa aldiaren ostean hainbat astez sedimentatzen duenak (muga migrazioak), onura handiak jasoko lituzke neurri honekin. Era berean, ugalketa garaian proposatutakoaren antzeko neurria justifikatuko litzateke negurako ere, on egingo balieke besteak beste *Podiceps nigricollis*, *Anser anser* eta *Anas clypeata* espezieei.

1.AC.20. KBEaren esparruan eta Inguruan dauden linea elektrikoaren arazoa aztertuko da. Hegaztiek talka egiteko edo elektrokutatzeko dituzten arriskuak identifikatuko dira. Titular diren erakundeekin batera, arriskua duten lineetan jarduteko plan bat egingo da, linea horietan talken aurkako gailuak eta elektrokuzioaren aurkako neurriak ezartzeko.

2.4. BISOI EUROPARRA (*Mustela lutreola*)**Helburuak, Gidalerroak eta neurriak**

Azken helburua	Bisoi europarraren populazio bideragarriak bermatzea, KBEaren harrera ahalmenarekin bat datozenak eta espeziearen kontserbazio egokia ahalbidetuko dutenak, betiere kanpoko esku hartzerik gabe edo esku hartze txikienarekin.
1. Helburu operatiboa	KBEan espeziearen gaineko inpaktuak zuzentzea eta habitataren baldintzak hobetzea
Gidalerroak eta neurriak	"Urtegien sistema" funtsezko elementuan proposatutako neurri guztiak aplikatu behar dira, eta, bereziki, ertzetako landaretza orla kontserbatu eta berreskuratzeari eta KBEko uren kalitateari eta egoera ekologiko onari eusteari buruzkoak. 1.AC.22 neurria aplikatu behar da, bisoi europarraren habitatak kontserbatzeko zuzentzarau teknikoak idaztekoa eta hedatzekoa. AP.10.- Bisoi europarra KBEaren inguruko erreplide eta bideetan harrapatua izatearen ondorioz hil daitekeen puntuak (puntu beltzak) identifikatu eta ezabatzea.
2. Helburu operatiboa	KBEan, bisoi europarraren eremuan, bisoi amerikarraren basatutako populazioa murriztea eta kontrolatzea.
Gidalerroak eta neurriak	1.AC.18 neurria aplikatu behar da, KBEan bisoi amerikarraren urteroko jarraipena egin, ezabatu eta kontrolatzeari buruzkoa.
3. Helburu operatiboa	Jarduraren eraginkortasuna ebaluatzea.
Gidalerroak eta neurriak	1.AC.16 neurria aplikatu behar da, KBEan bisoi europarraren populazioaren aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa. Jarraipenean, beharrezko laginak hartu behar dira populazioaren genetika aztertzeko, bai eta espeziearen patologiek populazio desberdinen gainean duten eragina aztertzeko ere.

**2.5. IGARABA (*Lutra lutra*)****Helburuak. Gidalerroak eta neurriak**

Azken helburua	Igarabaren populazio bideragarriak bermatzea, KBEaren harrera ahalmenarekin bat datozenak eta espeziearen kontserbazio egokia ahalbidetuko dutenak, betlere kanpoko esku hartzerik gabe edo esku hartze txikienarekin.
1. Helburu operatiboa	Espeziearen galneko inpaktuak zuzentzea eta Igarabarentzat KBEko habitataren baldintzak hobetzea.
Gidalerroak eta neurriak	"Urtegien sistema" funtsezko elementuan proposatutako neurri guztiak aplikatu behar dira, eta, bereziki, ertzetako landaretza orla kontserbatu eta berreskuratzeari eta KBEko uren kalitateari eta egoera ekologiko onari eusteari buruzkoak. 1.AC.22 neurria aplikatu behar da, igarabaren habitatak kontserbatzeko zuzentarau teknikoak idaztekoa eta hedatzekoa. AP.10 neurria aplikatu behar da, bisoi europarrari zuzendua (puntu beltzetan faunaren pasabide egokiak eta espezie honekin lotutako pasabideak identifikatu eta gaitzea).
2. Helburu operatiboa	Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea.
Gidalerroak eta neurriak	1.AC.16 neurria aplikatu behar da, KBEan igarabaren populazioen aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa. Jarraipenean beharrezko laginak hartu behar dira, populazioaren genetika aztertzeko.

2.6. BASO IGEL JAUKARIA (*Rana dalmatina*) eta HEGOALDEKO APO PINTATUA (*Discoglossus galganoi jeanneae*)

Helburuak, Gidalerroak eta neurriak

Azken helburua	Kontserbazio egoera onean diren populazio egonkorak bermatzea KBEan
1. Helburu operatiboa	Apo pintatuak eta baso igel jauzkariak KBEan duten populazio egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren hobeto jakitea
Gidalerroak eta neurriak	1.AC.16 KBEaren eremuan baso igel jauzkaria eta apo pintatu iberiarra ote dauden zehazteko ikuskapen zehatzak egingo dira. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. Baso igel jauzkariaren eta apo pintatuaren kudeaketa plana idatzi eta onartzen dela sustatzeko 1.AC.19 neurria eta anfibioen bi espezie hauen habitata kontserbatzeko gidalerro teknikoak idatzi eta hedatzeari buruzko 1.AC.22 neurria aplikatu behar dira.
2. Helburu operatiboa	KBEan bi espezieen habitataren baldintzak hobetzea
Gidalerroak eta neurriak	AP.11.- Proiektu bat idatziko da KBEaren eremuan anfibioen habitata hobetzeko jarduerak garatzeko. Honako lanak egingo dira: - Jarduerak jasan ditzaketen guneak identifikatzea. - Jarduerak definitzea. - Proiektuak betetzea. "Urtegien sistema" funtsezko elementuan proposatutako neurri guztiak aplikatuko dira, eta, bereziki, KBEan uren kalitate eta egoera ekologiko onari eusteari buruzkoak.



2.7. NAIADAK: *Unio elongatus*, *Anodonta anatina*, *Potomida littoralis*

Helburuak. Gidalerroak eta neurriak

Azken helburua	Naiadeen populazio bideragarriak bermatzea, betiere KBEaren harrera ahalmenaren arabera.
1. Helburu operatiboa	KBEan naiadeen populazioak kontserbatzea eta leheneratzea.
Gidalerroak eta neurriak	1. AC.18. Fauna exotiko inbaditzailearen espezieen jarraipenerako eta kontrolerako aldizkako jarduerak egingo dira. Ukipena sortzeko aukera gehienak dituztenak lehenetsiko dira, adibidez zebra muskuilua. 1.AC.19. Araban naiadeentzako kudeaketa plan bat egingo da eta onar dadila sustatuko da.
2. Helburu operatiboa	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea.
Gidalerroak eta neurriak	1.AC.16. KBEan naiadeen populazioaren aldizkako jarraipena egitea. Aleak translokatzeko programak gauzatzea, populazio bideragarrietako aleei atxikitako zebra muskuiluak puntualki garbitu eta populazioak areagotzeko. AP.12. Urtegietako ur mailen kudeaketa kontrolatzea, naiade populazioen gaineko eraginak arintzeko.

3. KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK**3.1. GOBERNANTZA**

7. Azken helburua	Organo publiko eskudun guztien elkarlan instituzionala hobetzea eta egungo ingurumen eta sektore araudi guztia egokitzea, dokumentu honekin koherentea izan dadin.
7.1. Helburu operatiboa	Lehenegorria eta kontserbazio neurriak aplikatzeko koordinazio sistema bat sortzea organismo eskudunekin.
Jarduerak	1. Lantalde egonkor bat sortu Eusko Jaurlaritzan, Arabako Foru Aldundian eta Bizkaiko Foru Aldundian biodibertsitatearen arloan eskumena duten organoen artean eta inguruko udaletan eta administrazio batzarretan artean ere, KBEaren kudeaketa agiriko arau, neurri eta gainerako xedapenak aplikatzeko orduan lankidetzan aritzeko. Jarraipen organo hau, gehienez, KBEa izendatu eta urtebetara eratu beharko da.
7.2. Helburu operatiboa	Gaur egungo ingurumen eta sektore araudi guztia egokitzea, plana errazago aplikatzeko.
Jarduerak	1. Egin beharreko jardueren baimen protokoloa ezartzea, erakunde jabeen, sustatzaileen, Gasteizko Udalaren eta Foru Aldundian KBEa kudeatzen duen organoaren artean.

4. HELBURU, GIDALERRO ETA NEURRIEN PROGRAMA. KALKULU EKONOMIKOAK.

Atal honetan jaso den jardura programan, ES2110011 Zadorra Sistemako Urtegiak KBEan identifikatutako funtsezko elementuetarako ezarritako helburu nagusiak lortzeko ezarritako neurrietarako aurreikusitako jardura desberdinak laburbildu dira.

Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren, 22.3 artikuluan ezarrita dagoena betetzeko, jarraian Programa honetako jardura eta neurriei dagozkien kalkulu ekonomikoak zehaztuko dira. 22.3 artikuluko horrek zera dio:

Txostenak, bere tramitazioaren hasierako faseetatik hasita, memoria ekonomiko bat izango du, zeinak espresuki jasoko dituen 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan jasotako baterako finantzaketa komunitarioaren arabera beharrezkotzat hartzen diren aurreikuspenak.

Jarraian, aipatu den 8. artikuluko hori transkribatuko da, zehazki 1. eta 2. puntuak:

- Kontserbazio bereziko eremu izendatu ahal diren eta barnean lehentasunezko habitat naturalak eta/edo lehentasunezko espezieak dituzten lekuei buruz proposamenak egiten dituzten aldi berean, Estatu kideek Batzordeari hauen kalkulak bidaliko dizkionte, bidezkoa denean, Europako Batasunaren finantzaketari buruz egokitzat jotzen dutena dela-eta, 6. artikuluko 1. idatz zatian hitzartuta dagoenaren arabera hauen betebeharrak bete ahal izateko.
- Estatu kide bakoitzarekin ados jarrita, finantzaketa eskatzen deneko leku garrantzitsuetarako, Batzordeak zehaztuko ditu ezinbestekoak diren neurriak, lehentasunezko habitat naturalen kontserbazio egoera mantendu edo lehengoratzeko, eta neurri horien ondoriozko kostu osoak ere zehaztuko ditu.



Funtsezko elementua	GIDALERROAK ETA NEURRIAK	Guztira (€)
1. URTEGIETAKO SISTEMA	1.AC.24. "Europar Batasunaren Intereseko" eta "lehenetsuna duen Europar Batasunaren Intereseko" gisa katalogatutako habitata eguneratu eta zehaztea, 1/2000 eskalan, eta, horrez gain, aldaketa nagusiak, habitak kaltetuak eta ingurumen eraginak identifikatzea.	40 000
	1.AC.25. Jarduera Plan bat egitea, antzemandako ingurumen arazoei irtenbidea bilatzeko, ingurumen eraginak zuzentzeko eta ukitutako guneak ekologikoki egokitu eta leheneratzeko bidean aurrera egiteko neurri zehatzak zehaztu eta zenbatesteko aldera.	60 000
	AP.1 Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiak isurtzen duen Arroa Babesteko Plan Berezia idaztea, uraren kalitatearen arazoa ikuspegi globalerik jorratuta. Plan horretan, besteak beste, urtegiaren babes perimetroa (<i>uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretua</i>) ezarri beharko da, eremu horretan garatu beharreko jarduerak eta lurzoru erabilera araututa, ur kantitateari eta kalitateari eta urtegiaren dauden ekosistema naturalei eragin ez dakien.	45 000
	AP.2. Dulantziko kanaletik datorren eta urtegiara doan karga kutsagarria kontrolatzea: Kanal horretatik datorren eta Mendixurreko Isatserra iristen den uraren kalitatea antzemateko kontrol gunea instalatuko da. Nutrienteen ekarpen altua antzematen bada, neurri egokiak hartuko dira karga kutsagarria murrizteko.	34 000
	AP.3 Mendixurreko isatsetik (eta urtegiaren horiek ugaritzen diren beste toki batzuetatik) makrofitoak ateratzea urteko landaretza zikloaren amaieran (juda amaieran), berau deskonposatzea salhesteko, eta, horrek eragiten duen nutriente ekarpena ekiditeko. Aterako dena <i>Ceratophyllum demersum</i> espeziea izango da soilik, berau balta hedatuen dagoena eta azalera unitateko biomasa gehien metatzen duena.	90 000
	1.AC.1 Urtegiak ertzetako berezko habitata leheneratzea, beharrezkoa denean ukitutako lursailen jabeekin do errentariekin borondatezko akordioak sustatuta.	600 000
	1.AC.2 Akordio boluntarioak sustatuko dira ibaiertzeko lursailen jabe edo errentariekin, sotoak sortu eta ibaiertzeko basoa leheneratzeko gaur egun makalen plantazioek okupatzen dituzten lur zatietan edo KBEaren barruan dauden luberrituetan edo Natura 2000 Sareko beste espazio batzuen ondo-ondoko lotura eremuetan.	300 000
	1.AC.26 Kontrolrik gabeko isurketen eragina jasan duten eremuak leheneratzea. Hondakinak kentzea, eta geroago tratatu eta behar bezala kudeatzea. Eraginpean dauden guneak ingurumen aldetik lehengoratzeko, babestutako habitata lehengoratzeko.	120 000

Funtsezko elementua	GIDALERROAK ETA NEURRIAK	Guztira (€)
1. URTEGIETAKO SISTEMA	1.AC.27. KBEan aplikatu beharreko araudiari egokitu ez zaizkion baratze eta eraikinen eta bestelako okupazio edo kokalekuen administrazio egoera aztertzea eta halakoak desagerraraztea, baldin eta Natur Gune Babestuen babesa eta helburuen lorpena arriskuan jartzen badituzte. Beste administrazio eskudun batzuekin lankidetzan, halakoak desagerrarazteko eta eraginpean dauden habitatak lehengoratzeko jarduerak inplementatzea. KBEko sektore garrantzitsuenetan esku hartzeen lehentasunak ezartzea.	250 000
	1.AC.3. Arro erakunde eskudunaren aurrean KBE osatzen duten urtegien jabari publiko hidraulikoa zehatz dadila sustatzea, erakunde horrek egindako edo ballozkotutako azterlan teknikoetan oinarrituta. Horretarako, kontuan hartuko dira ezaugarri morfologikoak, azterlan hidrologiko eta hidraulikoak eta eskuragarri dauden erreferentzia historikoak. Jarduera honen helburua jabari publiko hidraulikoarekin lotutako eremuak (zortasun eta polizia guneak barne) lehentasunezko esku hartzerako gune gisa zehaztea eta mugatzea da, alpatu helburuetan lagunduko duen ibaiertzeko landaretza naturalaren orla sortzeko.	180 000
	1.AC.5 Urtegietak uraren kalitatearen jarraipenerako aldizkako laginekin jarraitzea, eta, hala badagokio, horiek areagotzea.	30 000
	1.AC.6 KBEra isuritako efluenteen ezaugarrien ingurumen jarraipena egitea (saneamendu sareak, ur zikinen araztegia, etab.), bereziki, administrazio eskudunekin eta erakunde eta organismo titularrekin lankidetzan. KBEra isurtzen duten araztegien funtzionamenduaren jarraipena egitea. Hala badagokio, isurien kalitatea bitarteko akuatiko hartzailearen eskakizun ekologikoetara egokitzeko neurriak har daitezela sustatuko da. Urtero, txosten espezifiko bat egingo da. Txosten horretan egindako laginketa guztien emaitzak agertuko dira, eta, informazio horretan oinarrituta, hauek ezarriko dira: kutsadura iturri posibleak, eta, bidezkoa bada, uraren kalitatea bermatzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak eta prebentziozkoak.	72 000
	1.AC.10 KBEari eragiten dion eremuan egiteke dauden saneamendu eta arazte planak gauzatzea.	700 000-



Funtsezko elementua	GIDALERROAK ETA NEURRIAK	Guztira (€)
1. URTEGIETAKO SISTEMA	AP.4.- Urtegiaren bi ertzetan iragazki berdeko zuhaixka eta zuhaitz pantaila begetala instalatzea, zabalera nahikoa duena, arrotik datorren kutsadura nahasia arinduko duena eta KBEaren funtsezko elementu gisa jotzen diren espezieentzako korridore ekologiko gisa funtzionatuko duena. Proiektuan urez gainezka egiten duten lurzoruekin lotutako baso naturalak leheneratzea jaso beharko da, baita, ahal denean, uretatik urrunduena dauden guneetan baso autoktonoa berreskuratzea ere.	1 000 000
	Jarduera horren barruan, beharrezkoa den kasuetan, balio ekologiko handiko lurren eskurapen, errentamendu, usufuktu eta/edo zortasuneko eragiketarak sartuko dira, hala badagokio. Jarduteko esparru zehatzak KBEaren Organo Kudeatzaileak definitu beharko ditu, egindako xehetasuneko inbentarioa oinarri hartuta.	
	1.AC.28. Konektibitate ekologikoari dagokionez onetsitako estrategiak aplikatzea, KBEan garrantzi komunitarioko edota lehentasuneko izendatutako habitaten arteko konexioa bultzatzeko, baita horien eta Natura 2000 Saretik hurbil katalogatutako beste habitak batzuen eta, oro har, ingurumen ingurumen interesa duten eremuen artekoa ere. Konektibitatearen aldetik interesgarriak diren eremuak identifikatu, eta horiek kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak egitea.	80 000
	1.AC.23 KBEan ezaugarri bereziak edo erabilera publiko berezia duten lekuetan, ingurune bakoitzari egokituak seinalak instalatuko dira, KBE eremua eta haren ingurumen balioak identifikatzeko.	50. 000
	1.AC.21 Ingurumen heziketako eta sentibilizazioako jarduerak garatzea. Horren harira, Arabako Foru Aldundiak dagoeneko urtegietan martxan dituen erabilera publikoko, ingurumen heziketako eta naturaren interpretazioko kudeaketa lanekin jarraitzea proposatu da. Jarduera horiek Urrunagako urtegiara ere hedatuko dira.	520 000
	AP.5 Urtegiako ertz guneetan uraskak eraikitzeko eta horiei eusteko planarekin jarraitzea, horiek behar dituzten abereak daudenean.	50 000

20

Funtsezko elementua	GIDALERROAK ETA NEURRIAK	Guztira (€)
1. URTEGIETAKO SISTEMA	1.AC.11 KBEan funtsezkotzat jotako habitaten bilakaeraren jarraipena egiteko protokolo bat ezartzea (6 urterik behin), batez ere ur gezako habitaten kasuan (3140, 3150, 3170* eta 3260), okupatutako azaleran eragiten dituzten aldaketak, bilakaera, elkarren arteko loturak eta egiturazko bilakaera baloratzeko. Horretarako, gune iraunkorrak jarriko dira, kontserbazio egoeraren bilakaera aztertze aldera.	20 000
	1.AC.12 Azalera oso txikiak okupatzen dituzten, urteko garai jakin batzuetan egoerarik onena duten edo zehazteko teknika bereziak behar dituzten ur gezako habitaten inbentarioa eta kartografia zehatza egitea. Habitat horiek honakoak dira: 3140 <i>habitata</i>, <i>kare ur oligomesotrofo</i>ak, <i>Chara spp</i> landaretza bentikoarekin; 3150 <i>habitata</i>, <i>Magnopotamion</i> edo <i>Hydrocharition</i> landaredia duten laku eutrofico naturalak; 3170* <i>habitata</i>, Behin-behineko urmael mediterraneoak; 3260 <i>habitata</i>, Estala muinotar eta menditarreko ibaiak, <i>Ranuncullon fluitantis</i> eta <i>Callitriche-Batrachion</i>-eko landarediarekin.	40 000
2. UR GEZAKO HABITATAK	1.AC.13 Laginketa zehatzak egitea, inguru akuatikoarekin lotutako erkidegoaren edota eskualdearen intereseko ornogabeek KBEaren eremuan duten presentziari buruzko ezagutza hobetzeko. Laginketa ahalegina erkidegoaren intereseko espezieetan oinarritu behar da, hasieran, besteak beste, <i>Coenagrion mercuriale</i>, <i>Macromia splendens</i>, <i>Oxygastra curtisii</i>, <i>Margaritifera auricularia</i>, <i>Margaritifera margaritifera</i>... espezieetan, bai eta Habitaten Zuzendarauko eranskinetan jasota ez dauden eta mehatxu egoera handiagoa duten horietan: <i>Coenagrion scitulum</i>, <i>Calopteryx xanthostoma</i>, <i>Calopteryx haemorrhoidalis</i>, <i>Onychogomphus uncatus</i>, <i>Boyeria irene</i>...	40 000
	1.AC.15. KBEan dauden mehatxupeko flora populazioen aldizkako monitorizazio eta jarraipena egitea (6 urterik behin), haien banaketa, adierazgarritasuna eta kontserbazio egoera zein diren jakiteko.	20 000
	1.AC.17. KBEko habitat naturalen balio galera eragiten duten flora exotiko inbaditzaileen espezieak (<i>Robinia pseudoacacia</i>, <i>Allianthus altissima</i>, <i>Buddleja davidii</i>, <i>Cortaderia selloana</i>, <i>Arundo donax</i>, <i>Azolla filiculoides</i>, eta abar) kontrolatzeko eta haien aldizkako jarraipena egiteko jarduerak. Habitat naturalen egiturarentzat eta funtzioentzat kaltegarriak ez diren metodoak erabiliko dira. Zein azaleratan jardungo den, hori KBE kudeatzen duen organoak zehaztuko du.	30 000



Funtsezko elementua	GIDALERROAK ETA NEURRIAK	
3- HEGAZTI FAUNA	AP.6 Lezkadi hezearen presentzia sustatzea Mendixur eta Garaioko isatsen eremuan.	50 000
	AP.8 Mendixur eta Garaioko isatsetan maila hidriko egokia mantendu ahal izateko eta habitata egonkortzeko aukera emango duten atxikipen presa txikiak edo atagia bat eraikitzeko aukera aztertzea, eta, hala badagokio, horiek eraikitzea, uraren mailan gorabeherak egon daitezela saihestuz eta, ura biltzeko ekintzen bidez, urez gainezka egin dezaketen larreak sortuz edo/eta mantenduz.	1 000 000
	1.AC.16: Urtero KBEan garatzen diren hegazti fauna habiagileen eta negutarren errolda kanpainekin jarraitzea.	30 000
	1.AC.18. Fauna espezie inbaditzaileen jarraipen eta desagerpen jarduera jarraituak eta aldizkakoak egitea, RAMSAR eremuko gunek eta eragin ahalmen handiagoa dutenak lehenetsita, adibidez karramarro gorria eta lurtzoa.	175 000
	AP.9 Ibaletako arrantza jarduerak hegazti fauna akuikolako espezieen habia prozesuan dituen eragin posibleak aztertzea, eta, hala badagokio, zuzenketa neurriak proposatzea.	12 000
	1.AC.20. KBEaren esparruan eta inguruan dauden linea elektrikoaren arazoak aztertzea. Hegaztiak talka egiteko edo elektrokutatzekeko dituzten arriskuak identifikatuko dira. Hala badagokio, arrisku larrietan neurriak edo jarduerak gauzatzea, linea horietan talken aurkako gailuak eta elektrokuzioaren aurkako neurriak ezartzeko.	100 000

Funtsezko elementua	GIDALERROAK ETA NEURRIAK	
3. HEGAZTI FAUNA	AP.9 Uretako hegazti negutar edo ugaltzaileentzako erreserba gunea sortzeko aukera aztertzea, eta, hala badagokio, berau sortu edo handitzea. 1.AC.5 eta 1.AC.6 neurriak aplikatu behar dira, uraren kalitatearen gainean, eta 1.AC.21 jarduera, ingurumen heziketarako jarduerak garatzeari eta erabilera publikoa kudeatzeari buruzkoa. Kontuan hartuko da hegaztientzako bereziki sentikorrak diren arloetarako sarbidea mugatu egin behar dela, urteko zikloko funtsezko une batean (adibidez, ugalketa garaian) gizakien presentziaren ondorioz eragozpen zuzenik sor ez dadin. 1.AC.5 RAMSAR eremuan eta AP-9 jardueran definitutako eremuetan uretako eta sedimentuetako zianobakterien presentzia antzemateko analisiak egitea.	6 000 40 000
4. BISOI EUROPARRA (Mustela lutreola)	AP.10 Bisoi europarra KBEaren inguruko errepede eta bideetan harrapatua izatearen ondorioz hil daitekeen puntuak (puntu beltzak) identifikatu eta ezabatzea. 1.AC.22 KBEan bisoi europarraren kontserbaziorako zuzentarau teknikoak idaztea eta hedatzea. 1.AC.18 Fauna espezie exotiko inbaditzaileen aldizkako jarraipena, desagerrarazpena eta kontrola. Ukipena sortzeko aukera gehienak dituztenak lehenetsiko dira, adibidez bisoi amerikarra. 1.AC.16 KBEan bisoi populazioen jarraipena (gutxienez hiru urtean behin). Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. "Urtegien sistema" funtsezko elementuan proposatutako neurri guztiak aplikatu behar dira, eta, bereziki, ertzetako landaretza orla kontserbatu eta berreskuratzeari eta KBEko uren kalitateari eta egoera ekologiko onari eusteari buruzkoak.	100 000 8 000 120 000 30 000



Funtsezko elementua	GIDALERROAK ETA NEURRIAK	
5. IGARABA (<i>Lutra lutra</i>)	"Urtegien sistema" funtsezko elementuan proposatutako neurri guztiak aplikatu behar dira, eta, bereziki, ertzetako landaretza orla kontserbatu eta berreskuratzeari eta KBEko uren kalitateari eta egoera ekologiko onari eusteari buruzkoak. Bisoi europarra funtsezko elementuan proposatutako neurriak ere aplikatu behar dira. 1.AC.22 , KBEan igarabaren habitata kontserbatzeko gidalerro teknikoak idatzi eta hedatzeari buruzkoa, eta AP.7, KBEaren inguruko errepede eta bideetan harrapaketa onduzko heriotza puntu posiblerak identifikatu eta ezabatzea.	
	1.AC.16 KBEaren eremuan igarabaren presentzia zehazteko ikuskapen zehatzak egitea,	20 000
	AP.11.- Proiektu bat idaztea, KBEaren eremuan anfibioen habitata hobetzeko jarduerak garatzeko. Putzu sateliteak egokitzea, espezie hauen hazkuntza bultzatzeko.	35 000
6. HEGOALDEKO APO PINTATUAK (<i>D. galganoi</i> , <i>jeanneae</i>), eta BASO IGEL JAUZKARIA (<i>R. dalmatina</i>).	1.AC.16 KBEaren eremuan hegoaldeko apo pintatuaren eta baso igel jauzkariaren presentzia zehazteko ikuskapen zehatzak egitea.	12 000
	"Urtegien sistema" funtsezko elementuan proposatutako neurri guztiak aplikatuko dira, eta, bereziki, KBEan uren kalitate eta egoera ekologiko onari eusteari buruzkoak. Baso igel jauzkariaren eta apo pintatuaren kudeaketa plana idatzi eta onartzen dela sustatzeko 1.AC.19 neurria eta anfibioen bi espezie hauen habitata kontserbatzeko gidalerro teknikoak idatzi eta hedatzeari buruzko 1.AC.22 neurria aplikatu behar dira.	24 000



Funtsezko elementua	GIDALERROAK ETA NEURRIAK	
7. NAIADAEAK: (<i>Potomida littoralis</i> , <i>Unio mancus</i> , <i>Anodont</i>)	1. AC.18. Fauna espezie exotiko inbaditzailearen jarraipenerako eta kontrolerako aldizkako jarduerak egitea. Ukipena sortzeko aukera gehienak dituztenak lehenetsiko dira, adibidez zebra muskuluia.	60 000
	1.AC.19. Araban naiadeentzako kudeaketa plana egin eta onartzea.	6 000
	1.AC.16. KBEn naiadeen populazioaren aldizkako jarraipena egitea. Aleak translokatzeko programak, populazio bideragarrietako aleei atxikitako zebra muskuluak puntualki garbitu eta populazioak areagotzeko.	90 000
GUZTIRA		6 289 000